



Pako Santana eta Gema Berjano Goiazko Ostatuaren aurrean, atzo. ENERITZ MAIZ ETXARRI

Andaluziako kutsuarekin ireki du Goiazko Ostatuak

Cadizeko Pako Santanak eta Gema Berjano arabarrak ireki dute Bidania-Goiazko jatetxe-taberna; hilabete batzuk dira bertan ari direla lanean, eta jada martxa hartu dutela diote // 5

Euskarak aukerak zabaltzen dituela nabarmendu dute

Hilaren 22a da Tolosako Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko azken eguna; etorkinentzako ikastaroak eta eskola-umeen gurasoei zuzendutako talde bereziak antolatu dituzte // 4



Tolosako Udaleko eta Aitzol euskaltegiako arduradunak atzo, aurkezpenean. J.A.D.

Lau mendi ibilaldi presoei elkartasuna adierazteko

Mendiz Mendi Etxera egingo dute irailaren 18an Lizartzan; izena eman daiteke jada // 6

Asteburuan Ibarran eraso homofobo bat izan zela salatu dute

Tolosaldeko Itaiak egin du salaketa; gizon talde batek irain homofoboak eta mehatxuak egin zituen // 2



ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM



Ehnelur kooperatibako langileek lanuzteak hasi dituzte

Bi orduko geldialdia egiten dute astelehenetik; lan baldintzak hobetzea eta inposaketekin amaitzea eskatzen diote exekutibari

Erredakzioa Anoeta

Ehnelur zerbitzu kooperatibako langileak bi orduko lanuzteak egiten ari dira. Astelehenean hasi ziren eta konponbiderik ezean gutxienez hilaren 17ra arte egingo dituztela esan dute. «Azken urteetan Ehnelurreko langileak pairatzen ari garen errespetu faltan, inposaketen, lan baldintzen okertzearen, arrazoitu gabeko lanpostu aldaketan eta abarren aurrean ezin dugu gehiago», esan dute.

Horiek horrela, hiru eskaera zehatz egin dizkiote exekutibari: langileen lan baldintzak langileekin «zintzoki» adostea, eguneroko jardunean pairatzen dituzten «bidegabeko inposaketekin» amaitzea, eta lanaren kudeaketa langileekin adostu eta



Atzoko elkarretaratzean hainbat baserritarren babesa jaso zuten. ATARIA

antolatzea. Esan dutenez, egoeraren aurrean lanuzteak hasi dituzten langileek «prestutasun osoa» dute egoera bideratu eta konponbideak adosteko.

Bi orduko lanuzteak egitearekin batera Anoetako Gurdi dendaren aurrean elkarretaratzeak

ari dira egiten *Ehnelur-Gurdi: langileekiko begirunea-inposaketarik ez* lelopean.

Atzo elkarretaratzea egin zuten eta hainbat baserritar gerturatu ziren mobilizaziora elkartasuna adierazteko. Langileek babesa eskertu dute.

Ibarran eraso homofobo bat izan dela salatu dute

Itaiak azaldu duenez, ustezko eraso larunbat gauean gertatu zen; gizon talde batek hainbat gizon homosexualen aurka egin zuen

Erredakzioa Ibarra

Tolosaldeko Itaia antolakundek sare sozialetan zabaldu duenez, «larunbat gauean zehar, gizon talde batek irain homofobak, mehatxuak eta gatazka fisikorako saiakerak errepikatu zituen hainbat gizon homosexualen aurka».

Emakumeen Antolakunde Sozialistak eraso gaitzetsi eta

babesa adierazi die eraso homofobo jasan zutenei.

«Kasu isolatuak izatetik urrun, eraso hauek bizi dugun errealitateari berezkoa zaion biolentziaren isla dira», esan dute. Horren aurrean, lanean jarraituko dutela gogorarazi dute, «zapalkuntza gabeko gizarte baten berme bakarra den antolakuntza komunista indartzu».



Itaiak herrian zehar jarri dituen pankartetako bat. ATARIA

Azken egunak Bidania-Goiazko etxeetarako galdetegia betetzeko

Erredakzioa Bidania-Goiaz

Bidania-Goiazko Udalak dagoneko aurkeztua du azken urtean etxebizitzaren inguruan egin duen lanketa.

Orain, herrian bizitzeko interesa dutenen zerrenda osatzeko pausoak ematen ari da, galdetegi bat prestatuz. Galdetegia betetzeko azken eguna hilaren 14a, asteartea, izango da.

Galdetegia betetzea ez da herritarren lana bakarrik izango. Zerrenda hori herritarrekin eta gaur egun herritarrak ez direnekin osatu nahi dute. Galdetegia beteta, herrian dagoen etxebizitza eskaera neurtuko lukete, eta emaitza hori jakinda, eraikitzaile

ezberdinei jakinarazteko baliatuko dute. Beraz, Bidania-Goiazten bizitzeko interesa dutenek *Bidania-goiaz.eus* webgunean aurkituko dute galdetegia. Galdetegiaz gain, momentuz esku artean duten proiektuaren gaineko informazio guztia ere bertan eskuratu daiteke.

Udalak dagoeneko inbertsioa eginga du eremuan. Zehazki 306.500 euro jarri ditu; 131.500 euro lurra erosten eta 175.000 euro eremuan eraikiko diren etorkizuneko lokalen truke. Udalak etxebizitza eraikitzaile ezberdinei Kalegoena aurreproiektua erakutsiko die, proiektuaren exekuzioa aurrera eramatera gonbidatuz.



MOTXILAK BIZKARREAN BERRIRO ERE

Azken egunetan tximeletak sabelean izango zituzten eskualdeko haur zein gazte askok. Eskola itzulera sortzen duen poz eta urduritasuna ikasleen aurpegieta nabari zen, izan ere eskola publikoko ikasleek atzo hasi zuten ikasturtea. Pandemia dela eta hainbat segurtasun neurri hartu beharko dituzte baita aurtengo ikasturtean ere. IMANOL GARCIA LANDA

Asier Imaz

Irailaren 13an jarriko du ATARIA-k martxan *Ataria Irratia*ren denboraldi berria. Asteazken zehar lau ardatz nagusi izango ditu, euskal musikaz inguratutik.

Goiza eskualdeko albisteentzat izango da. Tolosaldean gertatzen ari dena kontatuko du Pasahitza saioan, 09:00etatik 13:00etara.

Bazkalostean, 15:00etatik 16:00etara, saio berezien txanda izango da. Gai edo atal zehatzak landuko dituzte erredakzioko kazetariak. Jarraian, Zebrabidea saioak Euskal Herriko albisteak jorratuko ditu. Arrosa Sarearen magazina da Zebrabidea, eta *Ataria Irratia* ere bertan parte hartzen du.

Azkenik, 20:00etatik aurrera, saio librean txanda izango da. Irrati librean filosofiarekin bat eginaz, *Ataria Irratia* herritarren eskura geratuko da iluntzetan, nahi duenak nahi duen saioa egin dezan.

Asteburuei dagokienez, eguerdira arte trikiti doinuak entzuteko aukera izango da 107.6 fm edo *Ataria.eus*-en bidez. Hilean behin, Hauspo Artean trikitia saioa gehituko zaio eskaintza horri. Horrez gain, asteke hainbat saio berriro entzuteko aukera egongo da.

PASAHITZA

Tolosaldeko protagonisten aho-tsak, zuzeneko hartu-emanak, prentsurrekoak eta ATARIA-ko kazetarien kontakizunek osatuko dute goizeko magazina astelehenetik ostiralera. Horrez gain, kolaboratzaile sare zabala du ATARIA-k gai desberdinak lantzeko. Luis Galarragak, adibidez, astelehenero pilota kontuak izango ditu hizpide; Alain Rekondok, telesailez hitz egiten jarraituko du; Amaia Senpere-nak, Galtzaundiren aktualitatea



Irratiko estudioa irailaren 13rako prest. 107.6 fm edo 'Ataria.eus'-en entzun daiteke irratia. ATARIA

Astelehenean hasiko da 'Ataria Irratia'ren denboraldi berria

Asteazken zehar lau atal nagusi izango ditu programazioak: Pasahitza, podcast-ak, Zebrabidea eta saio libreak. Asteburuan, trikiti doinuek hartuko ditu goizak.

kontatuko du; Aintzane Artolak bi astez behin errezeta goxoak prestatuko ditu; Idokia Apaolazak psikopedagogia izango du hizketa gai. Ikastetxeetako ikasleak ere Pasahitzatik pasako dira, Iñaki Zubeldiak literatura-ren historia errepasatuko du eta Joxe Anjel Sarasola herri kirol kontuez ariko da Desafioa atale-

an. Horiekin batera, beste hainbat kolaboratzaile ere izango dira 09:00etan hasiko den saioan.

PODCAST-AK

ATARIA-ko kazetariak gai zehatz baten inguruan egunero saio bat egingo dute, 15:00etatik 16:00etara. Baserri mundua

Eneritz Maizek ekarriko du bi astez behin; Imanol Garcia Landak natura eta barne ezagutza jorratuko ditu; Irati Saizarrek asteburuko kultur ekitaldien errepasoa egingo du, protagonisten elkarrizketekin, ostiralero; Iñigo Terradillosek bidaien inguruko saioarekin jarraituko du; eta Jon Miranda literatura-ren itsasoan

barneratuko da, Letren Errepublikan.

SAIO LIBREAK

Urtero indartu nahi den atala da saio libreei dagokiena. Herritarren eskura jarri nahi da irratia, 20:00etatik aurrera. Edonork bere saioa egiteko aukera izango luke. Horretarako *ataria@ataria.eus* helbidera idaztea nahikoa izango da, edo 943 65 56 95 zenbakira deitzea.

Lan-urte hasiera honetan ondorengo saioak daude loturik: Karmen Sanzek musika klasikoari buruz hitz egiten jarraituko du Musikasi saioan. Ekaitz Aramendik Mailu ta Akuilu musika saioarekin jarraituko du, baina berrikuntzekin etorriko da, izan ere, saio bakoitzean musikari edo musikazale bat elkarrizketatuko du. Imanol Artola *Felix*-ek (H)ari Naizela bertso saioa gidatuko du beste urtebetez. Idokia Gereñuk antzerkia irratiratuko du Eleak eta Beleak irratsaioan. Josu Artutxaren Zer berri? berrikuntzen artean kokatu behar da. Moda, tendentziak eta beste hainbat gai izango ditu hizpide tolosarrak, hilean behin.

Atal hori, ordea, oraindik zabalik dago eta horrela egongo da lan-urte guztian. *Ataria Irratia*-n saio libreak egiteko aukera, beraz, zabalik dago.

ZUZENKO SAIO BEREZIAK

Estudioa kalera ateratzeko helburua azpimarraturik dago aurtengoan ere. Tolosako Beotibarretik zuzenekoak, herrietako ekitaldi berezien emanaldiak eta beste hainbat ekimen eman nahi dira aurrera, *Ataria Irratia* eskualdean bere lekua hartzen joan dadin.

Eta gogoratu, irratia entzuteko orratza fm-an 107.6an jarri behar dela Tolosaldean. Eskualdean eta bertatik kanpo, *Ataria.eus*-en entzun daiteke.

4

POSITIBO BERRI ESKUALDEAN

6.498 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik 273 (%4,2) positiboak izan ziren. Gipuzkoan 99 atzeman zituzten, tartean 4 Tolosaldean; hiru Tolosan eta bat Ibarra. Osasun eremuei dagokienez, eskualdekoa kolore horian dago (241,29), eta Alegia kolore gorritik laranja jaitsi da (357,41). Osasun sailak esan du, era berean, abuztuaren 30etik irailaren 5era bitarte 24 hildako egon direla.

'Aiztondoren zirtotsa' sekuentzia didaktikoa, eskura

AIZTONDO // Harituz Bertsozale Taldeak eginiko *Aiztondoren zirtotsa* ikerketako sekuentzia didaktikoa erabilgarri dago dagoeneko *Bertsoikasgela.eus* atarian. Pasadizo umoretsuetan agertu ohi den bat-bateko erantzun laburra da zirtotsa, erriman oinarritu ohi dena, eta ikas-irakas prozesua oinarritzko unitate horretatik hasteak gerora bertsoa osatzeko gaitasunean lagundu dezakeela uste du Harituzek.

Ibilgailu elektrikoentzat kargagailua jarri dute

ADUNA // Adunan martxan dago ibilgailu elektrikoen kargagailua. Uztartzako aparkalekuan jarri dute eta momentu berean bi ibilgailu kargatu ditzake. Ibilgailu bakoitza, 22kw/h abiaduran kargatzen da. Kargagailua erabiltzeko, mugikorrean *Charge and Parking* izeneko aplikazioa instalatu behar da. Abenduaren 31 arte karga guztiak doakoak izango dira eta gero tarifa txiki bat ezarriko dute.

'GenEroa' dantza ikuskizuna Iruran eta Gaztelun

IRURA/GAZTELU // Bihar 'GenEroa' ikusteko aukera egongo da 20:00etan, Irurako San Migel plazan, eta igandean, hilak 12, Gazteluko plazan, 19:00etan. Kimua dantza kolektiboak genero-ikuspegiaren inguruko lanketa, originala bezain berritzailea den dantza ikuskizun eta mediazio parte-hartzailez osatutako kale ikuskizuna da. Gaztelura joan ahal izateko udaletxean eman behar da izena (600 080 370).

Gernikako Arbolako eta Trianguloa atzealdeko lanak

TOLOSA // Tolosako Udalak jakinarazi du Gernikako Arbola eremua ari dela itxura berria hartzen eta dagoeneko zabaldu dituztela epaitegi ondoko oinezkoentzako ibilbideak. Trianguloa atzealdeko zorua berritzeko lanak amaitu dituzte ere. Zuhaitzen sustraien eraginez, zorua altxatuta zegoen hainbat lekuetan eta koska arrisku-tsua zeuden. Eremua segurua goa eta irisgarriagoa da orain.

Suertatu daitezkeen aukerak, euskaratik eta euskaraz zabaltzeko

Jada zabalik da 2021-2022 ikasturterako matrikulazio kanpaina Tolosako Aitzol Udal Euskaltegian; 'Euskaraz zabaltu aukerak!' da aurtengorako aukeratu duten leloa

Josu Artutxa Dorronsoro

Guztia prest dute Tolosako Aitzol Udal Euskaltegian 2021-2022 ikasturteari hasiera emateko; azken ikasturteko emaitzak «oso onak» izan zirela nabarmendu dute, eta jada zabalik da aurtengorako matrikulazio kanpaina. Iazko irailean ziurgabetasunak eta zalantzak ziren nagusi zuzendari eta irakasleen artean. Aurtun, orde, egoerak eskatzen duen modura egokitu dira, segurtasun neurri guztiak hartuta, euskaltegia espazio segurua izan dadin bermatzeko. Gainera, «ilusioz eta gogoz gainezka» daude ikasle berriak hartzeko; hauek, irailaren 22ra arteko epea dute matrikula egiteko.

Ikasleak erakartzeko kanpainak hala eskatzen duelako, urtero moduan, lelo berria aukeratu dute udal euskaltegiek: *Euskaraz zabaltu aukerak!*. «Modu eraikitzaile batean, euskarak aukerak zabaltzen dituela adierazi nahi dugu. Zergatik zabaltu euskara? Zergatik hedatu, gehitu, ireki, hobetu? Etorkizunaz hitz egiten duelako. Hizkuntza izateaz aparte, kultura bat ezagutzeko modua ere badelako. Horrez gain, beste hainbat aukera eskaintzen dizkigu: sentimentalak, pertsonalak, lan aukerak... Hori guztia mahai gainean jartzeko erabiliko dugu aurtengo leloa», azaldu du Maixabel Zubillaga Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendariak.

Aurreko urteetan bezala, ordutegi zabala izango du euskaltegiak, tolosar guztientzat egongo da zabalik eta maila ezberdinetako herritarrei bideratuta egongo da. Ikasturte berrirako, gainera, ohiko zerbitzuak mantendu dituzte: aurrez aurreko taldeak, autoikaskuntza edota titulu ofizial guztiak prestatzeko aukera. Horrez gain, etorkinentzako ikastaro bereziak eta eskola-umeen gurasoei zuzendutako talde bereziak ere antolatuko dituzte aurtun.

Olatz Peon Tolosako alkateak nabarmendu duenez, euskararen normalizazioan eta sustape-



Olatz Peon Tolosako alkatea eta Maixabel Zubillaga Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendaria, aurkezpenean. J. ARTUTXA

Iraupen ezberdineko aurrez aurreko moduluez gain, autoikaskuntzarako aukera ere egongo da

nean pausoak ematen jarraitzeko «ezinbestekoa da hizkuntza politika partekatua bultzatzea eta elkarlanetik jardutea, indarrak batuta, euskararen alde». Alkateak gogoratu du helburu horrekin sortu dela aurtun Euskararen Aholku Kontseilua Tolosan. «Epe motz, ertain eta luzera

begirako hizkuntza politika estrategiak aztertzeko eta zehazteko, hizkuntza beharrei modu egokiagoan erantzuteko eta ohi-turetan eta erabileran eragiteko tresna izango da».

Herritarrak euskalduntzeko euskaltegiek egiten duten lana «ezinbestekoa» dela aitortu du alkateak, eta Aitzol Udal Euskaltegiak aurtengorako prestatu duen eskaintza «zabala» dela azpimarratu du. «Horregatik, herritarrak euskaltegian izena ematera animatzen ditut, euskara ikasteko eta hobetzeko aukera

galdu ez dezaten». Gainera, urtero bezala, diru-laguntzak emango dizkie udalak bertan errolatutako ikasleei: B2 maila bitartekoei %75eko diru-laguntza, C1 mailakoei %50ekoa, eta C2 mailakoei %25ekoa. Laguntza horiek jasotzeko, baina, aintzat hartzen dituzte %85eko asistentzia eta ikastaroen aprobetxamendua.

ESKUALDE OSORA

Tolosarrei ez ezik, eskualdeko herritar orori zuzendutako eskaintza du Aitzol Udal Euskaltegiak, eta euskara ikasi nahi duen

16 urtetik gorako edonork eman dezake izena bertan: atzeritik etorritakoek, euskaraz alfabetatu gabeek, erretirodun berriek, merkataritzako langileek, osasun sailekoek, epaitegikoek, Peñascal fundazioko ikasleek, guraso taldeek... Matrikulatzen diren ikasleen profilak aztertu ondoren, eskolak herriko gune ezberdinetan jasotzeko aukera egongo dela gogorarazi du Zubillagak, hala nola, Amarotz auzoan, Peñascal fundazioan edota ikastetxeetan.

Euskara hizkuntza gisa ikasteaz gain, agiri ofiziala nahi duten herritarrek ere eman dezakete izena, A1 mailatik C2 mailara bitarte. Ordutegiei dagokienez, 10, 8, 6 eta 5 orduko aurrez aurreko moduluak eskainiko dituzte, goizetik iluntzera, eta autoikaskuntzarako aukera ere egongo da, eskoletara joan ezin dutenentzat edota ordutegi malguagoa behar dutenei zuzenduta.

Erabilera bultzatzeko, mintzailaguna, mintzodromoak, antzerki saioak, bisita gidatuak, hitzaldiak eta beste hainbat ekintza antolatuko dituzte aurtun ere. «Eskolak emateaz gain, euskara normalizatzen laguntzen ere lan egiten dugu, eta euskaltegitik kanpo ere, euskaraz bizitzera animatzen ditugu ikasleak».

Irailaren 22an amaituko da matrikula egiteko epea. Ikasleek, aurrez aurre eman behar dute izena, euskaltegian bertan, Rondilla kaleko 34. zenbakiko eraikineko (Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskola) azken solairuan. Horretarako, egunero izango dute aukera, goizez (09:30-13:00) nahiz arratsaldez (16:30-20:00). «Oso garrantzitsua da izena epe barruan ematea, bestela, arazoak izan ditzakegu taldeak osatu eta ikasturtea martxan jartzeko», nabarmendu du zuzendariak. Euskaltegira matrikulatzen joan aurretik, ezinbestekoa izango da aurrez hitzordua hartzea, 943 651 006 telefonora deituz edo aitzolue@tolosa.eus helbidera mezua bidaliz. Informazio gehiagorako ere bi bide horiek erabili daitezke.

Eneritz Maiz Etxarri

Bidania-Goiatz

Duela bost urtetik bizi dira Pako Santana eta Gema Berjano Bidania-Goiatzen, eta azkenean, aurretik ausartu dira herriko jatetxea irekitzera. Maiatzaz geroztik, Goiazko Goiatz Ostatuko atea zabalik dituzte, eta «oso gustura» ari dira lanean.

Pako Santana Cadizen (Andaluzia) jaioa da eta Gema Berjano, berriaz, arabarra da. Maiatzaren erdi aldean ireki zuten eta orain arte egin duten bidearekin «pozik» agertu da bikotea. «Oso ondo» ari direla lanean dio Berjanok.

Herriarekin eta herritarrekin ere «gustura» daude, ez du zalan-tzarik: «Ostatua zabaldu genuenean herriak oso erantzun ona eman zigun, dena eman zuten. Egia esan oso pozik gaude, eta oso ondo hartu gaituzte hasieratik».

Bikoteak Kanaria Uharteetan lan egin zuen jatetxe batean, eta Euskal Herrira etortzearen arrazoietako bat, Berjano arabarra izatearekin batera, hiru seme-alaben hezkuntza izan zela kontatu dute. Era berean, herri txiki batean «landa eremua eta lasaitasuna» nahi zituzten, eta Bidania-Goiatzen aurkitu dute bizitokia. Eta, orain, baita lantokia ere.

Familia proiektua da Goiazko Ostatuan egin dutena. Kanaria Uharteetan izandako esperientzia zuten, eta «talde ona egiten dugu», dio Berjanok. «Aurretik ere behin baino gehiagotan eskaini edo animatu izan gintuzten herriko ostaturen bat irekitzera» dio Berjanok. Aurretik, senarrak aurrerapausoa ematea erabaki, eta biak sartu dira burubelarrirako proiektuan.

Esan dute buruan zutela berriaz ere batera lan egitearena. Haurrekin egon nahi zuten. «Orain artean bakoitzak alde baten egiten genuen lana, eta benetan zaila zen familiako kontziliazioa». Herrian bertan Ostata irekitzeko puntu garrantzitsuetako bat hori izan dutela diote: «Biok hemen gaude; bat doa edo bestea dator, eta herrian bertan gaude».

ESKAITZA EGOKITUZ

Azterketa bat egin dute jendeak edo herritarrek zer nahi eta eskatzen duten begiratzeko, eta eskaera horri erantzuten ahalegintzen ari dira. «Egia da bizitza handia duen herria dela, eta adin tarte guztietako jendea mugitzen dela», esan du Berjanok. Eta gaineratu dute: «Bost urtez bertan bizitzen egotearekin dagoeneko,



Pako Santana sukaldaria eta Gema Berjano zerbitzaria maiatzetik ari dira herriko Goiatz Ostatuan lanean. E. MAIZ

Familia proiektua osatuta, Goiazko Ostatuan lanean

Cadizekoa da Pako Santana sukaldaria eta Arabakoa da Gema Berjano zerbitzaria, eta duela bost urtetik Bidania-Goiatzen bizi dira; herrian bertan hasi dira lanean, eta maiatzean ireki zuten Goiatz Ostata

gutxi gorabehera, ezagutzen genituen zeintzuk ziren beharrak edota zer eskaini dakioken herriari».

«Gazteak daude. Bokatak, plater konbinatuak, patata minak edota hanburgesa bat jan dezaketena dira. Helduagoei, agian, bada, karta jatea gehiago gustatzen zaie; arrain freskoa, entsaladak, ... edota txerrikumea». Beraien berezitasun moduan dute txerrikumea, eta oso ondo ari dela funtzionatzen argitu dute: «Askok gustatzen ari da». Baina karta «irekia» dute, ahal den neurrian gustu guztietara iritsi ahal izateko. Astelehenetik ostiralera eguneko menua eskaintzen dute, eta «denetariko jendea da geratzen dena bazkaltzen», azaldu du Santanak. 09:00etan zabaltzen dituzte ostatuko atea, eta jendearen arabera ixten dute.

Taberna eta jatetxeaz gain, pilotalekuan bertan dute terraza jarrita. Astelehen eta astearte arratsaldeetan ixten dute jate-txea: «Langile asko dabil une honetan inguru hauetan, eta me-

nua eman ostean ixten dugu».

Txerrikumeaz gain, txipiroi entsalada epelak ere arrakasta izan duela diote. «Pako onak da sukaldaria», esan du bikoteak. «Produktua zaintzea gustatzen zait. Produktua ona bada eta mimitzen baduzu...», dio sukaldariak, eta Berjanok gehitzen du:

«Jatea gustatu egiten zaigu guri, eta bati ondo jatea gustatzen bazaio, sukaldaria adierazi egiten du»

**GEMA BERJANO
ZERBITZARIA**

«Hemen oso zaila da. Ez dira espezieak asko gustatzen, eta Cadizen asko erabiltzen ditugu»

**PAKO SANTANA
SUKALDARIA**

«Jatea gustatu egiten zaigu guri, eta bati ondo jatea gustatzen bazaio, sukaldaria adierazi egiten du».

Hamar urtetik gorako espe-

rientzia du sukaldaria andaluziarra. «Hotel, jatetxe, catering, ... sukalde ezberdinetan aritu naiz lanean». Bost izarreko Melia Hoteleko sukaldaria lanean aritua da Cadizen.

ANDALUZIA PLATEREAN

Nola ez, sukaldaria cadiztarra izanik, Goiazko Ostatuko jakietan, tarteka-tarteka, bada andaluziar kutsurik. «Noizean behin eguneko menuan plateren bat sartzen dut. Egia esan, hemen oso zaila da. Hemen ez dira espezieak asko gustatzen, eta Cadizen asko erabiltzen ditugu», esan du Santanak. «Zerbait ezberdina sartzen duzunean jendeak probatzen du, eta azkenean gustatu egiten zaie», dio zerbitzariak. Jendea probatzera ausartzen dela diote. «Esaterako, txipiroi entsalada beti ozpin saltzarekin edo ikusi izan dut hemen, eta ez dut sekula ikusi etxeko alioli batekin».

Goiazko Ostatura otorduren bat egitera joan nahi dutenek, aldez aurretik erreserba egitea komeni dela aurreratu dute. Eta

txerrikumearen kasuan, bai ala bai egin beharko da erreserba. «Txerrikumeak bere denbora behar du egiten, ez da edozein arrain edo entrekot egitea bezala», zehaztu du sukaldariak. 943 25 43 44 da Goiazko Goiatz Ostatu telefono zenbakia.

Bidania-Goiazko Udalarekin urtebeteko kontratua sinatu dute, eta bost urtez luzatzeko aukera izango dute. Ez diote herrian bertan lan egiteari kontra punturik ikusten, eta tabernaren bueltan, «giro ona» sortu dutelakoan daude.

Bidania bizi direnez, onartu dute ez zutela Goiazko giroaren berri handirik, eta hasieran beldur pixka bat izan zutela nola funtzionatuko ote zuen, baina «pozik» daude. Bidanitik joaten dela jendea, eta kanpotarrak ere gerturatzen zaizkiela diote. Jate-txe bat zabaltzeak erraza dirudiela azaldu dute, baina benetan ez dela horrela diote. «Gustuko lana behar du izan», azpimarratu dute, eta ordu askoko lana bada ere, beraiek «bizitu» egiten dute.

Irati Saizar Artola Lizartza

Zazpigarrenez antolatu dute Mendiz Mendi Etxera mendi ibilaldia lizartzarrek. Iraileko hirugarren asteburuan egin ohi dute, eta aurten ere data hori baliatuko dute mendi buelta egiteko; irailaren 18an izango da. Dagoeneko izen ematea zabaldik dago *Kirolprobak.com* webgunean, eta gaur eta bihar Lizartzako plazan ere eman ahalko da izena, 20:00etatik aurrera.

Iaz beste modu batera antolatu zuten arren, aurten aurreko edizioetako formatura itzuli dira eta lau ibilbide prestatu dituzte. Nagore Esnaola antolatzailerak azaldu duenez, «beharrezko neurriak hartuz, betiko moduan egin zitekeela ikusi dugu, eta berriro lau mendi martxak egitea erabaki dugu». Izan ere, egoerak behartuta, bakoitzak gogoko zuen mendira egin zuen ibilaldia iaz, eta tontoretatik argazkiak bidali zituzten, elkartasun modura, ondoren bideo batean jasotzeko.

Aurten, ordea, irailaren 18an, markatutako ibilbideetan parte hartuko dute mendian ibiltzea gustuko dutenek. 3, 10, 18 eta 35 kilometrotako ibilbideak dira, publiko guztiari zabalduta. Bidean zehar anoa guñeak jarriko dituzte jan-edanarekin. Ibilaldi luzeena egiten dutenak 07:00etan aterako dira; ertainekoak, 18 kilometrokoak, 08:00etan; 10 kilometro egingo dituztenak 09:30ean, eta azkenik, familia giroan egingo dutenak, 3 kilometrokoak, 10:30ean. Guztiak herriko plazatik. Betiko moduan, txartel bana izango du parte hartzaile bakoitzak eta bidean zigitatu egingo zaie.

Iazko edizioan ezin izan zuten bazkaririk eman, baina aurtengorako badute irtenbidea: paella egingo dute, baina



Iazko edizioan jasotako argazki bat, mendi tontorrean, izena emateko garaian banatu zituzten zapiak jantzita. ATARIA

Mendiz Mendi Etxera, presoei babesas adierazteko

Irailaren 18an egingo da mendi ibilaldia Lizartzako mendietan; aurten ere lau ibilbide prestatu dituzte eta eramateko bazkaria jarriko dute mendizaleentzat

eramateko. Esnaolak azaldu duenez, gastuak berdinak izaten jarraitzen dute, eta izen ematearen tarifa jaitsi beharrean, eramateko bazkaria prestatzea erabaki dute. «Eguneko segurua ordaintzen da, anbu-

lantzia ekartzen dugu, opariak eskatuak ditugu, janaria erosi ohi dugu eta gastuak berdin berdin dauzkagu; prezioa jaitzita ez zitzaigun errentagarri aterako», zehaztu du antolatzailerak. Beraz, mendizaleak

menditik etortzen direnean, txartela erakutsi eta paella emango diete trukean. Poltsak eta kartoizko tuperrak prestatu dituzte janaria banatzeko. Hori bai, Esnaolak jakinarazi du mahai eta aulkirik ez dutela ja-

IBILBIDEAK

1 IBILBIDE LUZEA. 35 kilometro eta 2.200 metroko batz besteko goranzko malda. Irteera 07:00etan, plazan. 16 urtetik gorakoentzat. Prezioa: 21 euro.

2 IBILBIDE ERTAINA. 18 kilometro eta 100 metroko batz besteko goranzko malda. Irteera 08:00etan, plazan. 12 urtetik gorakoentzat. Prezioa: 16 euro.

3 IBILBIDE LABURRA. 10 kilometro. Irteera 09:30ean, plazan. 8 urtetik gorakoentzat. Prezioa: 16 urtetik gorakoek 12 euro eta besteek 8 euro.

4 FAMILIA GIROAN EGITEKO IBILBIDEA. 3 kilometro. Irteera 10:30ean, plazan. Adin mugarik ez dago. 4 eta 14 urte artekoek 6 euro eta hortik gorakoek 12 euro.

rriko bazkarirako eta norbait bertan geratzen bada, antolakuntza ez dela gertatu daitekeenaz kargu egingo.

Izena emateko epea irailaren 17an amaituko da 12:30ean. Eta bestela, Lizartzan bertan, plazan, mahai bat jarriko dute gaur eta bihar, eta datorren astearte eta ostegunean, 20:00etatik aurrera.

PRESOEI BABESA

Hiru dira preso jarraitzen duten lizartzarrek, Aitor Agirrebarrena, Gari Etxeberria eta Jon otegi, eta Esnaolak gogorazi duenez, nahiz eta gertuago dauden espetxeetara lekualdatu, «oraindik preso jarraitzen dute».

«Egoera berezi honen aurrean elkartasun uholdea izan dadila beste urteetan modukoa eta geure pausoek ekar dezatela gure senide eta lagunen etxeratzea», gehitu du.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Finalera sartzeko asmoz eta aukerekin

Joseba Otaegi eta Iñaki Errazkin IV. Mahala Euskal Pentatloi Sariaren bigarren kanporaketan lehiatuko dira

Imanol Garcia Landa

Harriari 10 jasoaldi, giza proban plaza bat, aizkorarekin kanaerdiko enbor bat eta 45 ontzako enbor bat ebaki, txingekin hiru plaza eta korrika 10 itzuli zezen plazari kilometro bat osatuz. Lan horiek egingo dituzte larunbatean Azpeitiko zezen plazan, 18:00etan hasita, IV. Mahala Euskal Pentatloi Sariaren bigarren kanporaketan lehiatuko diren hamabi kirolariak. Lehen sei denbora onenak egiten dituztenak pasako dira finalera. Asmo horrekin joango dira bertara Joseba Otaegi zizurkildarra eta Iñaki Errazkin tolosarra. Hauek izango dituzte aurkari: Aritz Irazabal, Aratz Mugertza, Benat Amade, Kepa Peñagarikano, Jagoba Otaegi, Julen Gabirondo, *Izeta VI.a*, Julen Kañameres, *Zelai V.a* eta Gorka Etxeberría.

Otaegik aurreko larunbatean lortu zuen bigarren kanporaketa honetan parte hartzeko txartela, denbora onena eginez. «Finalera pasatzea estuago egongo da, bai-



Joseba Otaegi. I.HINTZA ELUSTONDO



Iñaki Errazkin. I.G.L.

na badu esperantza finalera pasatzeko. Ez da aurreko larunbateko lana baina askoz gehiago, eta iruditzen zait maila horretan eginez gero, badudala aukera finalera sartzeko», esan du. Enbor bat gehiago izango dute oraingotan, eta aizkolaria izanik, horrek berari abantaila emango diola uste du.

Iazko finalean izan zen Errazkin eta horregatik bigarren kanporaketan sartuko da lehian. Gogotsu dagoela esan du tolosa-

rrak: «Hainbeste entrenamendu egin eta gero, gogoz gaude eguna iristeko. Nire lana egiten badut sartzeko moduan izango naizela espero dut». Aizkoran gero eta hobeto moldatzen ari dela dio, eta larunbateko saioan bi enbor izateak ez dio beldurrik ematen Errazkini. «Ez dira lan oso luzeak, eta segundo gutxitan egongo da sailkapena. Akats txiki batekin kanpoan geratzeko arriskua egon daiteke», esan du kirolari tolosarrak.

Finalerdiak jokatuko dituzte Joxan Tolosa Txapelketan

Erredakzioa Amezketa

Finalerdietara iritsi da buruz buruko Joxan Tolosa Txapelketa. Bihar eta etzi jokatuko dira partidak, bi egunetan 21:30ean hasita, Larrunarri pilotalekuan. Biharko lehenengo partidari, etorkizun mailakoa, Julen Alberdi zizurkildarrak (Aurrera Tolosa) eta Ekhi Irribarria aramarrak jokatuko dute. Bigarrenengoan, elite mailakoa, Eneko Labaka albizturtarrak (Aurrera Tolosa) eta Unai Astiz lekunberriarrak jokatuko dute. Hirugarrenengoan, etorkizunekoak, Oier Ariztegik (Erreka) eta Iker Amiano irundarrak (Aurrera Tolosa) jokatuko dute.

Larunbatean, lehen partidari, kadete mailan, Eneko Gorostidi amezketarrak (Zazpi Iturri) eta Beñat Labaka azpeitiarrak jokatuko dute. Ondoren, kadeteetan ere, Beñat Apezetxea goizuettarrak eta Oier Ibarluzeak (Lapke) jokatuko dute. Hirugarrenengoan, elite mailakoa, Iñaki Elola bidaniarrak (Aurrera Tolosa) eta Hodei Exposito astigarragatarrak jokatuko dute. Bi egunetarako sarrerak bost euro balioko ditu, eta zozketa bat ere antolatuko dute Zazpi Iturri elkarteak.

Unai Zabala aizkolaria ezin izan du kanporaketa gainditu

Erredakzioa Leaburu-Txarama

Igandean jokatu zen Mungian aurtengo 3. mailako Aizkora Txapelketaren bigarren kanporaketa. Bertan parte hartu zuen Unai Zabala leaburuarrak, baina ezin izan zuen finalera sailkatzeko balio zuten lehen bi postuetan geratu. Bederatzi aizkolari lehiatu ziren, eta Zabala seigarren geratu zen, 13.59ko denbora eginez. Aizkolari bakoitzak lau kanaerdiko ebaki zituzten, eta azkarrenak eta finalerako txartela lortu zutenak Xuban Kañameres (9.56) eta Andoni Iruretagoiena (10.39) izan ziren.

Nerea Eizagirrek 2023ra arte luzatu du Realarekin

Erredakzioa Tolosa

Nerea Eizagirre futbolari tolosarra 2023ra arte luzatu du bere hitzarmena Realarekin. 21 urteko erdilaria Natalia Arroyok zuzentzen duen taldeko kapitaina eta ikurra da. «Taldeen gusturago, talde ona daukagu, eta nik uste dut aurtengo urte polita izango dela», esan du tolosarrak. Aurreko denboraldian 13 gol sartu zituen. Manchester City taldearen eskaintza jaso zuela zabaldu zen, baina berak etxean gertatzea erabaki du: «Oraindik gaztea naiz. Askok laguntzen dit egonkortasuna izatea, gusturago nago hemen eta taldea gudan apustua egiten ari da».

Paula Del Pozo hamalagarren izan da Europako triatloi kopan

Erredakzioa Alegia

Paula Del Pozok junior mailako Europako triatloi kopako proba jokatuko duen igandean Banyolesen (Katalunia). Alegiarrak hamalagarren postua lortu zuen esprint distantzian jokaturiko proban. Igerian 750 metro egin behar izan zituzten, bizikletan 19,8 kilometro eta korrika 5 kilometro. Del Pozok 10.27an egin zuen igeriketako zatia, 28.39an bizikletakoa eta 18.12an korrikakoa. Irabazlearengandik 1.12ra helmugaratu zen Del Pozo.

Erika Amundarain laugarren, Triple Coronako zeharkaldian

Erredakzioa Amasa-Villabona

Erika Amundarain igerilari billabonatarren laugarren egin zuen larunbatean jokatu zen Triple Corona Illas Atlanticas erronkaren hirugarren itsas zeharkaldian, Ons irla eta Combarro artekoa, Galizian. 23 kilometroko distantzia 6 ordu eta 41 minutuko denboran egin zuen. Emakumezkoen mailan laugarren postua lortzeaz gain, sailkapen orokorrean 34. postua lortu zuen Amundarainek.

Lortutako emaitzarekin «oso gustura» dagoela esan du Amundarainek, bere helburu bakarra zeharkaldia bukatzea baitzen. Triple Corona bukatzea poz handia eman diola azaldu du, lau



Erika Amundarain, larunbateko proba bukatu eta gero. ATARIA

urte (iaz ez zen probarik egin) behar izan ditu eta erronka burutzeko: «Horrelako erronka luze bati nik bakarrik aurre egiteak poz handia ematen dit. Orain atsedena behar dut, bai fisikoa baita psikologikoa ere».

Joseba Mateos ibartarrak ere parte hartu zuen larunbateko proban, baina 7. kilometroan bertan behera utzi zuen. Esan du arazo pertsonalek ez ziotela lagundu proba gogor hau bukatzen.

BILLABONA FKE
Arratzain futbol zelaia

INFANTIL TXIKI MAILA Larunbata 11, 09:30ean
BILLABONA F.K.E. - MARTUTENE K.E.

1. JUBENIL MAILA Larunbata 11, 11:15ean
BILLABONA F.K.E. - OSTADAR S.K.T.

PREFERENTE MAILA Igandea 11, 16:30ean
BILLABONA F.K.E. - TOLOSA C.F.

Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO IRAILAK 9
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
galtzaundi, Txolarré, berria, BERTAKO HEDABIDEAK, Tolosaldeko gizarte eragileak

OSTEGUNA 09

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Meloren kultur asteburua: 11:30ean Melo ezagutuz, haurren-tzako ekintza: *Pli Pla!* liburuaren egileekin solasean eta jolasean, Joxe Arregi plazan.
16:30ean *Meri, Mari eta Lari* haur antzerkia Eldabe Teatroa taldearen eskutik, Aurrera plazan. (Eguraldi txarrarekin Joxe Arregi plazan).
Ondoren. Txokolate jatea.
19:00etan umorezko bakarriketak Beatriz Egizabal klown eta antzerkilarien eskutik, Joxe Arregi plazan.
20:30ean bokata afaria Joxe Arregi plazan.
Berastegi. Odol ematea 17:00etan, eskolan. Hitzordua hartzeko goizean deitu behar da.
Anoeta. Euskal Jaia antolatzeko biler a udaletxean, 18:30ean.
Tolosa. *First Cow* 19:00etan, Leidor antzokian.
Tolosa. Ohe elastikoak Trianguloa plazan. Gonbidapenak orduka emango dira, eta *Bibe.me* plataforman eskuratu ahal izango dira. Pertsona bakoitzak gehienez hiru gonbidapen hartu ahal izango du ordu bakoitzeko.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru! haurrei zuzendutako saioa.
09:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarriketap
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. Telefono zenbakia: 943 67 09 15.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. Telefono zenbakia: 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ezezonkorra izango dugu. Goizean hodeiak eta ostarreak tartekatuko dira eta orokorrean giroa lasaia izango da, euririk gabe. Arratsaldean hodeiak trinkotu eta euri zaparrada batzuk izango ditugu, non tarteka ekaitzak jo eta zaparrada gogorragoren bat egin dezakeen. Haizeak goizean aldakor joko du, baina arratsaldean iparraldera aldatuko da. Tenperatura jaitsi egingo da, balio altuenak 24-25 graduan errendituz.
Bihar. Giro aldakorrarekin jarraituko dugu. Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte zeruian hodei asko agertuko da eta tarteka euri pixka bat egingo du, bereziki eguneko erdiko orduetan. Arratsaldean atertu eta ostarreak zabalduko dira. Haizeak goizean iparraldetik joko du, arratsaldean aldiz ipar-ekialdetik. Tenperatura jaitsi eta ez da 22-24 gradutik pasako.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ILTZATUTA GERATZEN DIREN IRUDIAK

Irailaren 19an bukatutako da TOLOSALDEKO ATARIA-k antolatutako Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. Honakoa da jasotako irudietako bat eta *Trafalgar hobe guda gabeda* egileak aukeratutako izenburua. Argazkiak aurtengo udaran ateratakoak behar dute izan eta *Ataria.eus* webgunearen bidez igo behar dira. Hilaren 21ean hasiko da webguneko zozketa eta urriaren 31an jakinaraziko ditu ATARIA-k irabazleak. Baldintzak eta informazio gehiago *Ataria.eus* webguneko Argazki Lehiaketa atalean.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus • 107.6 fm •



'Opari Bonu Orlegia'

Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:
logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90
Epaimahaiaren saria



bi pertsonarentzako otordu bat
Bidania-Goiatzko Bailara jatetxean
iriartejauregia.com - Eliza Bailara, 8.
Bidania-Goiatz. - 943681234
ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Lixoneren bi saski zozkatuko dira.
cosmenticalixone.com
Ibaiondo industrigunea, 11. Aduna. - 943691280
atarikide-en saria